Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko ekainaren 25a, asteartea — 119 — Martes, a 25 de junio de 2019

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### DIPUTATU NAGUSIA

**Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia**

*Aniztasunean bizikidetzaren gaietan proiektuak gauzatzeko, Gipuzkoako udalei nahiz Gipuzkoako Lurralde Historikoan finkatuta dauden tokiko garapen agentziei zuzendutako diru laguntzen 2019ko deialdia ebaztea.*

Diputatu nagusiak 2019ko ekainaren 18an honako foru dekretua eman du:

Aniztasunean bizikidetzaren gaietan proiektuak gauzatzeko Gipuzkoako udalei nahiz Gipuzkoako Lurrade Historikoan finkatuta dauden tokiko garapen agentziei zuzendutako diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak 2017ko martxoaren 7ko Diputatuen Kontseiluko Erabakien bitartez onartu ziren. Era berean, diputatu nagusi honek 2019ko deialdia onartu zuen 2019ko otsailaren 7ko Foru Dekretuaren bidez.

Oinarrietan ezartzen denez, laguntza hauek elkarrekiko lehiakortasun jardunbideaz eman dira, diru laguntzak emateko prozedura izapidetzea Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren eginkizuna izan da eta balorazio batzordeak egin du prozedura ebazteko eta diru laguntzak emateko proposamena, aipatutako oinarrietan ezarritako irizpideak kontuan hartuta.

9.1 oinarrian ezarritakoaren arabera, diputatu nagusiak emango du deialdiaren ebazpena, foru dekretu baten bidez. Bestalde, 9.2 oinarriak eta 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1, b) artikuluan ezarritakoari jarraituz, deialdi honen ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Argitarapen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du, eta jakinarazpena egintzat ulertuko da lege ondorio guztietarako, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Era berean, argitaratze horrekin bete egiten da diru laguntzei publizitatea emateko obligazioa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauaren 17.1 artikuluak ezarritakoaren arabera.

Horrela bada, ebaluazio batzordeak egindako ebazpen proposamenari jarraituz, diputatu nagusiak

EBAZTEN DU

*Lehenengo.* Ematea adierazten diren diru laguntzak, aniztasunean bizikidetzaren gaietan proiektuak gauzatzeko, Gipuzkoako udalei nahiz Gipuzkoako Lurrade Historikoan finkatuta dauden tokiko garapen agentziei zuzendutako diru laguntzen 2019ko deialdiari dagozkionak. Horretarako, ehun eta berrogeita hamar mila euroko (150.000,00) gastua xedatuko da zerrendan azaltzen diren erakunde onuradunen alde, zehazten diren zenbateko partzialengatik, aurrekontuko kontu sail hauen kargura:

1.0140.400.461.01.01.2019: 120.000 €.

1.0140.400.470.00.01.2019: 30.000 €.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DIPUTADO GENERAL

**Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos**

*Resolución de la convocatoria 2019 de las subvenciones destinadas a ayuntamientos guipuzcoanos y a agencias de desarrollo local radicadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para la realización de proyectos en materia de convivencia en la diversidad.*

El diputado general, con fecha de 18 de junio de 2019, ha dictado el siguiente decreto foral:

Las bases reguladoras para la concesión de subvenciones destinadas a ayuntamientos guipuzcoanos y a agencias de desarrollo local radicadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para la realización de proyectos en materia de convivencia en la diversidad fueron aprobadas mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 7 de marzo de 2017. Así mismo, la convocatoria para este año 2019 fue aprobada mediante Decreto Foral de este diputado general de 7 de febrero de 2019.

Como se establece en las bases, el procedimiento de concesión se ha llevado a cabo mediante concurrencia competitiva, la instrucción del mismo ha correspondido a la Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos y la comisión evaluadora ha formulado la propuesta de resolución y concesión de subvenciones, teniendo en cuenta los criterios establecidos en las referidas bases.

Según lo dispuesto en la base 9.1, corresponde al diputado general resolver la concesión de la convocatoria mediante decreto foral. Por otra parte, de conformidad con lo dispuesto en la base 9.2 y en el artículo 45.1, b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la presente convocatoria será objeto de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

Asimismo, con la citada publicación se da cumplimiento a la obligación de dar publicidad de las subvenciones concedidas, prevista en el artículo 17.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Por todo ello, de acuerdo con la propuesta de la comisión evaluadora, el Diputado General

RESUELVE

*Primero.* Conceder las subvenciones que se detallan a continuación, correspondientes a la convocatoria 2019 de las subvenciones destinadas a ayuntamientos guipuzcoanos y a agencias de desarrollo local radicadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para la realización de proyectos en materia de convivencia en la diversidad, disponiendo a favor de las entidades beneficiarias relacionadas, por los importes parciales que se indican, un gasto de ciento cincuenta mil euros (150.000,00) con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

1.0140.400.461.01.01.2019: 120.000 €.

1.0140.400.470.00.01.2019: 30.000 €.

EK\CV GAO-I-2019-04157

| *Kodea / Código* | *Udal onuradunak / Ayuntamientos beneficiarios* | *Programa / Programa* | *Puntuazioa / Puntuación* | *Diru laguntza / Subvención* |
|---|---|---|---|---|
| 2019-AN01-01 | Arrasateko Udala | Mundutik Arrasatera, Arrasatetik mundura | 71,0 | 8.172,51 € |
| 2019-AN01-02 | Errenteriako Udala | Harrera eta Elkarbizitza Errenterian | 76,0 | 8.748,04 € |
| 2019-AN01-03 | Irungo Udala | Gazteen Osoko Bilkura. 2018. Pleno Juvenil. Convivencia en la diversidad | 71,0 | 8.172,51 € |
| 2019-AN01-04 | Soraluzeko Udala | Auzoko 2019 | 65,0 | 3.336,00 € |
| 2019-AN01-05 | Ordiziako Udala | Ordizia kolore. Udal harrera sarea eta haur txokoa | 89,0 | 10.244,43 € |
| 2019-AN01-06 | Astigarragako Udala | Jatorri aniztasuna eta elkarbizitza Astigarragan | 60,0 | 4.622,40 € |
| 2019-AN01-07 | Oñatiko Udala | Jatorri aniztasunaren elkar ezagutza eta aitortza sustatzeko udal programa | 78,0 | 8.978,26 € |
| 2019-AN01-08 | Andoaingo Udala | Ongi etorri Andoainera | 60,0 | 6.906,35 € |
| 2019-AN01-09 | Eskoriatzako Udala | Herritar anitzak. Herri bakarra | 69,0 | 7.942,30 € |
| 2019-AN01-10 | Aretxabaletako Udala | Aniztasunean bizikidetza | 60,0 | 6.906,35 € |
| 2019-AN01-11 | Pasaiako Udala | Jatorri atzerritarra duten biztanleen azterketa | 72,0 | 8.287,62 € |
| 2019-AN01-13 | Hernaniko Udala | Beterri-Buruntza eskualdeko zaintza eta etxeko lanak demokratizatzeko mapa soziala eta ekintza plana | 69,0 | 7.942,30 € |
| 2019-AN01-14 | Tolosaldea Garatzen | Elkar ezagutzen 2019 | 76,0 | 30.000,00 € |
| 2019-AN01-15 | Donostiako Udala | Zurrumurruei aurre egiteko sentzibilizazio ekimenak | 68,0 | 5.453,60 € |
| 2019-AN01-17 | Urretxuko Udala | Aniztasuneko bizikidetza eraiki | 65,0 | 7.481,88 € |
| 2019-AN01-18 | Zarauzko Udala | Aniztasunean bizi, aniztasunean busti. | 76,0 | 8.748,04 € |
| 2019-AN01-19 | Ayuntamiento de Eibar | Actualización del protocolo de acogida a nuevas/os vecinas/os en Eibar | 70,0 | 8.057,41 € |

*Bigarren.* Ezestea jarraian adierazitako diru laguntzak, 60 puntuko balioespen gutxienekoa ez lortzeagatik (9.2 oinarria):

*Segundo.* Desestimar las solicitudes que se indican a continuación, por no obtener la valoración mínima de 60 puntos (base 9.2):

| *Kodea / Código* | *Entitate eskatzailea / Entidad solicitante* | *Programa / Programa* | *Puntuazioa/ Puntuación* |
|---|---|---|---|
| 2019-an01-12 | Urnietako udala | Urnieta anitz 2019 | 35,0 |
| 2019-an01-16 | Azpeitiko udala | Azpeitiko udalak emakumeen elkarbizitza sustatzea empalabrameinto proiektuaren bidez | 54,0 |

Foru dekretu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek foru dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, argitarapenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesatu partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko diputatu nagusi honi, argitarapenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2019ko ekainaren 20a.—Ander Arzelus Aramendi, Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritzako burua.

(4157)

El presente decreto foral es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas interesadas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado general, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 20 de junio de 2019.—El jefe de la Secretaría del Área del Diputado General, Ander Arzelus Aramendi.

(4157)

EK\CV GAO-I-2019-04157